



## **KOSTUEN EGITURA**

Gure zerbitzuko **kosturik garrantzitsuenak**, alokairua eta soldatak izango dira.

Kostuei dagokionez, gure enpresak **kostu finkoak eta bigarren mailako kostuak** izango ditu. Alde batetik soldatak, hau da, bost hezitzaile, bi sukaldari eta idazkari bat egongo dira bertan. Beste alde batetik, alokairuaren gastua izango dugu eta azkenik, erabiliko dugun tailerreko materiala eta bestelako jarduerak egiteko tresnak ere kostu finkoen atalean sartuko genituzke.

**Aldiz**, heziguneko ekintza batzuk burutzeko erabili behar dugun materiala **kostu aldagarria** izango da, adibidez haurren jolaserako erabiliko duguna. Puskatzen edo izurratzen den heinean aldatuko dugulako. Horrez gain, beste kostu aldagarriak izango dira bertaratu behar ditugun adituak eta azkenik egingo ditugun otorduak ere.